

Arantza Moreno: “Kirolarekin gozatzen jarraitu nahi dut”

Arantza Moreno ermuarrak Espainiako jabalina jaurtiketako txapelketa irabazi zuen pasa den urriaren 17an, Bartzelonan jokatu zen kadete mailan. 14 urte ditu Arantzak eta Lolo Garciak zuzentzen duen Ermuko Atletismo taldeko kidea da.

Lau aldiz izan da Bizkaiko kros txapel-duna eta pisu jaurtiketan. Halaber, 600 metro eta 1000 metroko frogetan oso ondo aritu da.

- **Noiztik zabiltza atletismo munduan?**

Orain dela 6 urte hasi nintzen. Kirola egitea betidanik izan dut oso gustuko eta hala hasi nintzen.

- **Jabalinako Espainiako txapelduna zara...**

Jabalina jaurtiketa ez da

gehien landu dudana kirola, baina orokorrean atletismoko alor guztietan ondo moldatzen naiz.

- **Zer nolako aurkariak izan zenituen?**

Lehiakide gogorrak izan nituen. Halere, lehen jaurtiketa ona egin nuen eta 38,01 metro egin nituen, urteko markarik onena ezarri eta irabazi egin nuen.

- **Gurasoek zer diote?**

Beti izan ditut ondoan eta beraiek ere gustura daude ni



pozik ikusita.

- **Lesio aldetik zer moduz?**

Ez dut arazo haundirik izan. Bizkarrak eta bernetako bi-
kiek sufritzen dute gehien.

- **Aurrera begira zein asmo**

duzu?

Orain bezala kirolarekin gozatzen segi nahiko nuke. Oso gustura nago entrenatzaile eta kideekin.

Asier Ibaibarriaga

Orain dela 20 urte inguru hasi zen Lolo Garcia ermuarra, Antonio Cid-en aginduetara Ermuko Atletismo taldearen alde lanean. Estatu mailako monitorea titulua eskuratu ostean, makina bat haur eta gazte izan ditu Lolo Garciak bere aginduetara. Gaur egun, bi taldetan banatuta daude atletak. Nagusien maila, Antonio Cid-ek zuzentzen du eta eskola mailako haurrak Lolo Garcia-k zuzentzen ditu, Eider Gisasola, Cristina Rojas eta Lore-

na Lopezen laguntzarekin. 60 neska-mutil ari dira guztira eta ia denak Ikastola, Ongarai eta Sallabenteko ikastetxeetako haurrak dira. 9 eta 14 urte bitartekoak dira guztiak eta era askotariko kirol arloak lantzen dituzte: lasterketa, pisu jaurtiketa, altuera jauzia, pertiga, jabalina jaurtiketa... Kirola lantzeko teknika eta bide batez, kirola eginez gozatzea dute helburu nagusi. Egunero dituzte entrenamenduak Betiondon, 16:00eta-

tik 18:00etara gaztetxoek eta 18:00etatik 20:00etara nagusiek. (lo-
lokirolak@hotmail.com).



Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Ardo banatzailea:

Riedel
Avgstvs
Clos Mogador
Yllera
Cantosán
Luis Cañas

Hugel&Fills
Anima Negra
Irache
Cillar de Silos
Vriego
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**
TELEFONOA: **943 17 60 75**